

## GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

EBAZPENA, 2018ko maiatzaren 17koa, Lege Garapen eta Arau Kontrolerako zuzendariarena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko Legea aldatzeko Lege-aurreproiektua.

Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak Euskal Autonomia Erkidegoko herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legea aldatzeko Lege-aurreproiektua prestatu du, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legeak zehaztu bezala izapidetu behar dena.

Horregatik, legezko erregulazio hori betetzeko, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuak eman zuen, 2017ko urriaren 26ko Agindua, zeinaren bidez, hasiera eman baitzitzaion Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioen zehapen ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 legea aldatzeko lege-aurreproiektua egiteko prozedurari, Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritza hau izendatuta legegintza-prozedura hau tramitatu behar duen organo gisa.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 8. artikuluan ezarritakoari jarraituz, herritarren eskubide eta bidezko interesei eragiten dieten xedapen orokorrek entzunaldiaren izapidea igaro beharko dute. Era berean, xedapenen izaerak hala eskatzen badu, jendaurrean jarri beharko dira.

Erregulazioak Euskal Autonomia Erkidegoko herritar guztiei eragingo die, izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoan zehatzeko ahala duten ente guztiek aplikatu beharko dute Lege hau, arau-hauste administratibo diren egitateengatik hiritarrak zehatu ahal izateko.

Hori dela-eta, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 8. artikuluekin eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 83. artikuluekin bat etorriz, aipatutako aurreproiektua jendaurrean jartzen da eta, horretarako, hogeit egun balioduneko epea ematen da hari alegazioak emateko, epe hori nahikoa dela iritzita. Epe hori iragarki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera hasiko da.

Azaldutakoagatik, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura eta egitekoak ezarri zituen apirilaren 11ko 71/2017 Dekretuaren 6.b) eta 14.1.e) artikuluetan xedatutakoarekin bat, honako hau

### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Jendaurrean jartzea Euskal Autonomia Erkidegoko herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legea aldatzeko Lege-aurreproiektua, egungo izapidetze fasean dagoen moduan eta hogeit egun balioduneko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

Bigarrena.– Aurreko atalean xedatutakoaren ondorioetarako eta alegazioak aurkeztu ahal izateko, proiektuaren edukia eskuragarri egongo da Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzan (Donostia kalea 1, Vitoria-Gasteiz) eta Eusko Jaurlaritzako egoitza elektronikoko iragarki-taulan, [www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus) -en.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko maiatzaren 17a.

Lege Garapen eta Arau Kontrolerako zuzendaria,  
XABIER UNANUE ORTEGA.